

IRAKURTZEKO ESTRATEGIAK LANTZEN, IRAKURMENAREN FASEAK ETA ATAZAK

	Zer egin dezakegu gelan?	Nola?
Irakurri aurretik	<p>Irakurketaren helburua argi izan</p> <p>Aurretiko ezagutzak aktibatu.</p> <p>Testuaren inguruko iragarpenak eta hipotesiak egin.</p> <p>Testuan aurkitu nahi dugunaren inguruan galderak egin</p>	<p>-Animatu ikasleak testua irakurtzera.</p> <p>-Helburua zehaztu (Irakurketaren zertarakoa zehaztu)</p> <p>- Gogorarazi gaiari buruz dakitena edo gai horri lotutako beste gai batzuei buruz eta aurretiko ezagutzak abiarazi.</p> <p>-Prestatu galdetegi digitala aurre ezagutzak azaleratzeko.</p> <p>- Erabili horma-irudi digitalak (Padlet...) aurre ezagutzak azaleratzeko.</p> <p>- Esan testu-markei erreparatzeko: marjinak, lerro-buruak, azpi-atalak, atalak, azpimarrak, letra lodiak...</p> <p>- Hitz ezagunak identifikatzeko eskatu: pertsonaien izenak, tokiak, argazki oinetako informazioa, irudiek islatzen dutena ...</p> <p>- Erabili online hiztegiak</p> <p>-Gaiak aurreratu eta ikasleen arreta bideratu atalik esanguratsuenetara.</p>
Irakurri bitartean	<p>Etengabe hipotesiak egin eta egiaztatu.</p> <p>Irakurritakoaren gaineko galderak egin.</p> <p>Testua irakurri ahala sortzen diren zalantzak argitu.</p> <p>Irakurri ahala, atalen edukia laburbildu.</p> <p>Ulermena erregulatu.</p> <p>Testuaren ideia orokorra atera</p> <p>Testuaren egiturari erreparatu (ideien ordena, testuaren zatiak, lokailuak, eta abar)</p> <p>Hitzen esanahia ondorioztatu</p>	<p>-Erreparatu testuak dituen irudi eta eskemei eta haien arteko loturak egin.</p> <p>-Testuaren alderdirik inportanteenei lotutako galderak egin ikasleen arreta bideratzeko.</p> <p>- Irakurtzen ari direnaren inguruan hitz egiteko proposatu.</p> <p>-Erabili teknika kooperatiboak: folio birakaria, hitzen jokoa...</p> <p>- Zailtasunak azaleratu: zein hitz den zaila, esaldien egitura, gaia...</p> <p>-Ikasleak ohitu galdetzera eta ulertzeko zailtasunak azaleratzea: Hitzak ulertzeko, esaldiak ulertzeko, paragrafoen arteko loturak ulertzeko</p> <p>-Aukera eman testua ulertu ez badute berriro irakurtzeko, testuinguruaren interpretazioa egiteko, hiztegietan edo entziklopedietan kontsultatzeko.</p> <p>-Irakurketa modu kooperatiboan edo interakzioaren bidez bultzatu.</p> <p>- Arbel Digital elkarreragilea baliatu prozesuaren modelajea egiteko.</p>
Irakurri ondoren	<p>Irakurritakoa antolatu (eskemak, buru-mapak, laburpenak) baliatuz</p> <p>Irakurritakoa erabili ezagutza berria eraikitzeko.</p> <p>Irakurritakoaren transferentzia egin (beste testuinguru batzuetara)</p> <p>Metakognizioa bultzatu (ulertzeko erabilitako estrategien inguruko gogoeta egin)</p>	<p>-Irakurritakoari buruz hitz egin eta azaleratu zein atal izan den zailena eta zergatiak zehaztu.</p> <p>-Alderatu liburuaren aurkibidea ikasleek ulertu dutenarekin eta ikusarazi zer garrantzia duten izenburuek eta epigrafeek norberaren laburpena buruan egite aldera.</p> <p>-Gogorarazi lexiko berria eta egiaztatu esanahia ulertzen dutela.</p> <p>-Saiatu irakurritakoa berrantolatzen; horretarako eskemak, buru-mapak, laburpenak proposatu.</p> <p>-Irakurritakoa erabiltzeko aukerak eman; hala, ezagutza berria eraikiko dute.</p> <p>-Proposatu buru mapa digitalak egtea.</p>